



**Idiazabalgo**  
Udala

**OHIKO UDALBATZARRA**

**2023ko uztailaren 17an**

**LEKUA:** Udaletxeko Batza

gela

**LEHENDAKARIA:** Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

**EZ BERTARATUAK:**

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

**IDAZKARIA:** Garazi Arraibi Larrea

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**ORDUA:** Hasiera: 18:00etan

### **1.- Aurreko Osoko Bilkuraren akta onartzea, hala badagokio**

Ahobatez onartzen da.

### **2.- Dekretuen berri ematea**

Idazkariak eta Alkateak azaltzen dute Excel batean bidaltzen direla Osoko Bilkura batetik besterako epean, Udaletxean eman diren ebazpenak eta esanguratsuenak komentatzen direla, zinegotziek ere horiei buruz galdetzeko direla.

Dekretuak azaldu ondoren, ez daude galderarik.

### **3.- Faktura zerrenden berri ematea**

Dekretuekin gertatzen den bezala, Udaletxeko faktura zerrendak bidaltzen dira Osoko Bilkurako deialdiarekin batera. Fakturen inguruko zalantzak argitzeko erabiliko da momentua.

Ez dago galderarik.

### **4.- Osoko Bilkura eta Batzordeen egutegiaren berri ematea**

Deialdiarekin batera Excelean 2023ko egutegia bidali da eta bilera datak horiek izango direla adosten da.

Alkateak dio denborarekin abisatuta, aldaketak egitea posible izan daitekeela.

Izalberrik eskatzen du deialdia bi egun baino denbora gehiagoz egitea hasiera batean, dokumentazioa ondo aztertzeko denbora emateko.

Datak ondorengoak dira:

- Osoko Bilkura: Irailak 7, 28, urriak 26, azaroak 30 eta abenduak 21. Arratsaldeko 6etan.
- Hirigintza, Ingurugiro eta Energia eta Landa Garapena Batzordeak: irailak 18, urriak 9 eta abenduak 11. Ordua: 16:30, 17:30 eta 18:30 hurrenez hurren.
- Ogasuna, Pertsonala eta Kontuen Batzorde Berezia: irailak 19, urriak 10, urriak 23, azaroak 14, 27 eta abenduak 12. Arratsaldeko 16:30etan
- Ongizatea eta Hezkuntza eta Berdintasuna Batzordeak: irailak 20, azaroak 22. Ordua: 16:30etan eta 17:30etan hurrenez hurren.
- Herri garapena, Kultura eta Kirola Batzordeak: irailak 21, urriak 19 eta abenduak 13. Orduak: 16:30, 17:30 eta 18:30etan hurrenez hurren.

### **5.- Udal talde politikoaren eraketa eta bozeramaileak izendatzea**

Idiazabalgo Udalean 2023-2027 legealdian bi talde politiko egongo dira: EH Bildu eta Izalberri. Lehenengoaren bozeramailea Iñaki Alberdi eta bigarren taldearen bozeramailea Mikel Mujika izango direla komunikatzen da.

## **6. Gurutze Berriko eraberritzea: maileguaren kopuru aldaketa onartzea, hala badagokio**

Gurutze Berri eraberritzeko mailegua Kutxa Ruralekin kontratatzea adostu zen 2023ko apirilaren 4ko Osoko Bilkuran, proiektuan obrak zeukan kantitatea hartu zen kontuan horretarako: 2.720.542,80 euro.

Bere aldetik, 2023ko aurrekontutan, Aldundiarekin hitz egin eta gero, honela jaso zen Gurutze Berriko eraberritzea:

- Gastua, 1.601.05.151.02.2023, Gurutze Berri auzoko urbanizazioa: 2.720.542,80 euro
- Sarrera: 2.710.99.00.2023, Erein diru laguntzak: 830.300 euro
- Sarrera: 2.912.01.151.2023, Mailegua: 1.869.200 euro

Maileguaren berri Aldundian eman ondoren, handik jakinarazten dute bat etorri behar direla aurrekontuetan dagoen kantitatea eta eskatuko dena. Bi aukera daude horretarako: mailegua moldatzea edo aurrekontuak aldatzea.

Rural Kutxarekin hitz eginda, baldintza berdinak dituen proposamena eskaintzen dute, kantitatea 1.869.200 eurora egokituta.

Bozkan jartzen da Rural Kutxaren eskaintza eta ahobatez onartzen da.

## **7. Gurutze Berriko eraberritzea: Esleipen proposamena onartzea**

“Udal Osoko Bilkurak 2023ko apirilaren 4ean egindako bilkuran Gurutze Berri auzoko eraberritze lanak egiteko pleguak onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

2023ko apirilaren 5ean Euskadiko Kontratazio Profilean argitaratzen da iragarkia eta sei enpresa aurkezten dira:

- Altuna y Uria S.A
- Campezo Obras y Servicios, S.A
- Construcciones Iturrioz S.A
- Sasoi Eraikuntzak, S.L
- Urbylocan, S.L
- UTE Zubieder-Mariezcurrenta

Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Balio-judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideen arabera balioztatu

beharreko dokumentazioa aurkeztu ondoren, puntuaketa hau lortu zuten enpresek:

	ITURRIOZ	SASOI	CAMPEZO	URBYCOLAN	ZUBIEDER	ALTUNA Y URIA
<b>GUZTIRA</b>	<b>35</b>	<b>30</b>	<b>29</b>	<b>29</b>	<b>29</b>	<b>26</b>

Proposamen ekonomikoak eta beraien puntuazioak hauek izan dira:

	ITURRIOZ	SASOI	CAMPEZO	URBYCOLAN	ZUBIEDER	ALTUNA Y URIA
<b>GUZTIRA</b>	<b>60</b>	<b>46.02</b>	<b>23.36</b>	<b>18.89</b>	<b>49.25</b>	<b>26</b>
	<b>1843673,62</b>	<b>1969438,69</b>	<b>2173211,08</b>	<b>2213429,88</b>	<b>1940346,31</b>	<b>2042118,01</b>

Ondorioz, aurkeztutako enpresen puntuazioa guztira hau izan da:

ITURRIOZ	<b>95 PUNTU</b>
UTE ZUBIEDER MARIEZCURRENA	<b>78,25 PUNTU</b>
SASOI	<b>76,02 PUNTU</b>
ALTUNA Y URIA	<b>63,93 PUNTU</b>
CAMPEZO	<b>52,36 PUNTU</b>
URBYCOLAN	<b>47,89 PUNTU</b>

Kontratazio-mahaiak, 2023ko ekainaren 20an bilduta, proposatzen dio Kontratazio-organoari Construcciones Iturrioz S.Ari esleitzea Gurutze Berri auzoaren eraberritzea.

Hirigintzako Batzordetik pasatu da proposamena eta ahobatez onartu da. Proposamena onartuta, Kontratazio-Mahaiak beharrezko dokumentazioa eta behin betiko bermea eskatuko dizkio Construcciones Iturrioz S.Ari eta hori egokia dela egiaztatuta, esleipena onartuko du Kontratazio-Organoak, hau da, Osoko Bilkurak.

Puntua bozkan jartzen da ondorengo emaitzarekin: Alde: 9 (Eh Bildu eta lzalberri), aurka 0 eta abstentzioa 0.

Hori horrela,

Osoko Bilkurak erabakitzen du:

- BAKARRA: Gurutze Berri auzoa eraberritzeko esleipen proposamena onartzea.

## **8. Guardi 09ko PAUa onartzea, hala badagokio**

2023ko apirilaren 19an GAOn argitaratu zen Guardi.Gu.09 Urbanizatzeko

Jarduketa Programaren hasierako onespenuk alegazioak jaso ez dituela kontuan hartuta, Osoko Bilkuratik pasa behar da behin betiko onarpena jaso eta aurrera jarraitzeko; ondoren GAO n argitaratu behar da ondorengo datuekin:

- Eremuaren identifikazioa: Guardi.09
- Sailkapena: Urbanizagarri sektorizatua
- Kalifikazioa: B10 Industriala
- Eraikigarritasuna: 5850 m<sup>2</sup> (t)
- Jarduketa-sistema: Konzentrazioa
- Aurrekontua: 997.668,47 euro
- Urbanizazio-obrak: PAUn jasotakoak
- Eraikuntza-obrak egikaritzeko epea: fase bakarra.

Ahobatez erabakitzen da behin betiko onarpena.

## 9. KALD0006 kreditu aldaketa onartzea. hala badagokio

Proposamena:

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipaturako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 227.00.338.00 2023	Herriko jaiak ekintzak	55.000,00	25.000,00	80.000,00
1 226.00.920.00 2023	Mater. Hornik. Besteak idazk. Kontu	8.000,00	7.000,00	15.000,00
1 227.00.920.00 2023	Idazk. Kontu zerbitzuak	57.550,00	15.000,00	72.550,00
1 226.00.165.00 2023	Mat. horn. besteak elektrikoak	10.000,00	10.000,00	20.000,00
1 649.01.414.00 2023	herriko lursailen mugaketa lanak	0,00	46.000,00	46.000,00
1 622.02.933.00 2023	Pilarrenea taberna	0,00	10.000,00	10.000,00
1 629.01.342.10 2023	soinketa gelarako bizikletak	0,00	13.000,00	13.000,00
1 422.01.920.00 2023	ekarpena goieki	0,00	3.240,00	3.240,00
1 625.99.933.00 2023	erabilera anitza. aulkiak kaballeteak	0,00	3.500,00	3.500,00

1 422.00.341.00 2023	eskola kirol egokitua. ekarpena	0,00	583,00	583,00
1 601.05.153.10 2023	Auzoetako inbertsioak	30.000,00	30.000,00	60.000,00
<b>GUZTIRA</b>		160.550,00	163.323,00	323.873,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 622.02.323.20 2023	Eskola aurreko portxea	40.000,00
d	1 623.02.920.00 2023	Efizientzia energetikoa	13.000,00
d	1 622.02.342.20 2023	Igerilekua. Sarrera egokitze lanak	15.000,00
d	1 226.99.311.00 2023	C19. Babesteko hornigaiak	2.156,50
a	2 870.01.000 2023	Diruzaintza gerakina	92.666,50
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>162.823,00</b>

Ahobatez onartzen da KALD0006 kreditu aldaketa.

### **10. Pilarreneako kanonaren jaitsiera onartzea, hala badagokio.**

Zamur SLk Pilarreneako esleipendunak eskaera egin zuen Udaletxean: kanona kentzea eta energia gastuak Udaletxeak ordaintzea nahi dute, kontuan izanda euren salmenten jaitsiera eta orokorrean dagoen prezio igoera. Horretarako plan bat aurkeztu dute negozioa berpizteko.

Azaltzen da kanona 200 eurora jaitea posible dela otsailetik hasita (orduko eskaera da), beti ere aurkeztutako plana betetzen dutela ziurtatzen bada. Orain ordaintzen duten kantitatea 698.86 eurotako da, BEZa barne, hemendik aurrera 200 euro kobratuko zaizkie, BEZa barne. Horretarako Dekretu bat egingo da, otsailetik ekainera ordaindu duena konpentsatzeko eta horretan jasoko da 2024ko uztaila arte ez duela ordaindu beharko kanonik (3.494,3 euro ordaindu dituelako otsailetik gaur arte, eta 1000 ordainduko beharko zituen), orduan plana bete duten ala ez kontrolatuko dela eta horren arabera erabakiko dela zerbitzuarekin jarraitu ala ez.

Patxi Mujikak dio bi alderdien gauza izan behar dela, Udaletxeak bai, baina eurak ere euren partetik jarri behar dutela. Egiten den akordio berrian baldintzak zeintzuk diren argi azaldu behar dela dio Patxik.

Iñaki Arriaranek dio kontratuarekin batera dagoen plegua ez dagokiola kontratu horri, hamar urte beharrean, bi urteko epea jasotzen delako. Kontratuari Dekretua atxikitzen zaionean hori argitu beharko dela adosten da.

Ahobatez onartzen da kanon jaitsiera eta plana betetzen dutenaren kontrola egitea.

## 11. Galderak eta eskaerak

- Idazkariak komentatzen du Gaztelekuko zerbitzua Kalexkari esleitu zaiola, eta zerbitzua hainbat urtetarako dela kontuan hartuta, Osoko Bilkuratik pasatu behar dela. Azaltzen da esleipenera aurkeztu zen enpresa bakarra izan dela Kalexka eta bete dituela baldintza ekonomiko eta teknikoak. Hori horrela, bozkan jartzen da:

- Kalexka enpresak Gazteleku Zerbitzua eramateko esleipena onartzea, 2023KOIR003 espedientean.

Bozken emaitza ondorengoa izan da: 9 aldeko (EH Bildu eta Izalberri), 0 aurka eta 0 abstentzio.

- Jaione Munarrizek galdetzen du nori dagokion Pilarreneako garbiketa. Alkateak argitzen du Udalak badaukala erantzukizuna estraktorea konpondu behar delako; izan ere, bere funtzionamendu ezak zikinkeria areagotzen du. Kreditu aldaketa burutu da konponketa hori egin ahal izateko.

-Patxi Mujikak komentatzen du argi gutxi dagoela Pilarreneako komunitan. Erantzuten zaio orain LEDak jartzen hasi dela Udaletxea bere eraikinetan eta pixkanaka zabaltzen joango dela eraikin desberdinetara.

-Aitziber Aizpuruk galdetzen du kreditu aldaketan 25.000 euro jaietan sartzearen arrazoia zein den. Alkateak erantzuten dio aurreikusi zena baino gehiago gastatu dela eta oraindik jai gehiago daudenez, kreditu aldaketa egin dela.

Kreditu aldaketari dagokionez baita, Aitziberrek auzoetako inbertsioei buruz galdetzen du eta Alkateak argitzen du Gardin jartzeko zebra-bide eta semaforoagatik dela.

-Kateko festen inguruan hitz egiten da eta komentatzen da jai horiek herrira ekarri nahi diren arren, gazteek betiko lekuan egin daitezela eskatzen dutela, erdigunera ekarriko balira, jendea tabernetara joango zelako.

Eta beste ezer esatekorik ez dagoela, Bilkura 19:05etan bukatzen da.

Alkatea

IÑAKI  
ALBERDI  
IPARRAGIRRE

Digitalki sinatuta  
norenagandik: IÑAKI  
ALBERDI IPARRAGIRRE -

72456101Y  
Data: 2023.07.19  
10:53:43 +02'00'

- 72456101Y

Idazkari-Kontuhartzailea

AIDA GARAZI  
ARRAIBI

Digitalki sinatuta  
norenagandik: AIDA  
GARAZI ARRAIBI

LARREA -  
72318568J

LARREA - 72318568J  
Data: 2023.07.18  
10:03:47 +02'00'